

# NAFARROAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK 2018



Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



AGENDA  
2030



euskarabidea

**Izenburua:**

*Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018*

**Argitaraldia:**

2020ko ekaina

**Argitaratzailea:**

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua

**Argitalpenaren arduraduna:**

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua  
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua

**Legezko gordailua:**


LG NA 940-2020

**Maketazioa:**

Innwit + Koldo Aiestaran

Lan hau Aitortu - PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimen baten  
mende dago. Iturria aipatzeko: Nafarroako Gobernua (2020).

*Nafarroako datu Soziolinguistikoak, 2018*. Iruña: Nafarroako  
Gobernua, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua.



# Aurkibidea

<b>Ohar metodologikoak</b>	<b>5</b>
<b>1. Euskara gaitasuna</b>	<b>7</b>
1.1 Euskara gaitasuna hizkuntza eremuetan, eskualdeetan eta hiriburuan	8
1.2 Euskara gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera	12
1.3 Hizkuntza gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko	13
1.4 Hizkuntza gaitasun erlatiboa adinaren arabera	14
1.5 Hizkuntza gaitasun erlatiboa gune soziolinguistikoaren arabera	16
<b>2. Lehen hizkuntza</b>	<b>19</b>
2.1 Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera	20
2.2 Lehen hizkuntza eremuaren arabera	20
2.3 Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera	21
<b>3. Hizkuntza erabilera</b>	<b>23</b>
3.1 Hizkuntza erabilera hizkuntza eremuaren eta gune soziolinguistikoaren arabera	24
3.2 Hizkuntza erabilera sexuaren eta adinaren arabera	25
3.3 Etxeko hizkuntza erabilera	26
3.4 Etxeko hizkuntza erabilera gune soziolinguistikoaren arabera	27
3.5 Euskaldunen hizkuntza erabilera ahaideekin	28
3.6 Euskaldunen hizkuntza erabilera familiatik kanpo	29
<b>4. Euskara jakitearen egiaztatzea</b>	<b>33</b>
4.1 Euskara jakitearen egiaztatzea sexuaren arabera	33
4.2 Euskara jakitearen egiaztatzea adinaren arabera	34
4.3 Euskara eta atzerriko hizkuntzak jakitearen egiaztatzea	34
<b>5. Ingelesez eta frantsesez jakitea</b>	<b>37</b>
5.1 Ingelesez edota frantsesez jakitea euskaldunen artean eta erdaldunen artean, adinaren arabera	37
<b>6. Euskarazko hedabideen kontsumoa</b>	<b>39</b>
6.1 Euskarazko hedabideen kontsumoa sexuaren arabera	39
6.2 Euskarazko hedabideen kontsumoa adinaren arabera	40
6.3 Euskarazko hedabideen kontsumoa gune soziolinguistikoaren arabera	41
<b>7. Eranskinak</b>	<b>43</b>
7.1 Eskualdeen osaera	43
7.2 Gune soziolinguistikoaren osaera	48





# Ohar metodologikoak

Txosten honetan azaltzen diren datu soziolinguistikoak 2018an bildu dira, NASTAT - Nafarroako Estatistika Erakundeak egin duen Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta eragiketa estatistikoan.

Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta / Encuesta Social y de Condiciones de Vida (hemendik aitzina GBBi / ESyCV) NASTATEk urtero egiten duen eragiketa estatistikoa da. Nafarroan dauden informazio beharrei egoki erantzuteko, edizio bakoitzean GBBik gai zehatz bat jorratzen du. 2018ko edizioan, GBBik Nafarroako gizartearen hizkuntzen ezagutza eta erabilera landu du berariaz, beste xedeen artean, *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)* plangintzaren ebaluazio-adierazle sistema datuez hornitzeko.

GBBi-2018 eragiketa estatistikoak hartu duen geografia eta populazio esparrua Nafarroako familia etxebizitzetan bizi den 15 urteko eta urte gehiagoko biztanleria da. Datu-bilketa telefono eta Internet (CATI eta CAWI) bidezkoa izan da. Laginaren ezaugarriei dagokienez, ausazko laginketa bakuna izan da, lurralde estratifikazioa eta konpromisoaren esleipena dituena. Lagina 5.792 inkestak osatu dute. Datu-bilketa 2018ko urrian eta azaroan egin zen.


2018ko GBBiko datu soziolinguistikoak 1991tik bost urtero (1991, 1996, 2001, 2006, 2011 eta 2016 urteetan) egin diren inkesta soziolinguistikoetako datuekin alderagarriak izan daitezten, txosten honetan aztertutako unibertsoa Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria izan da. Orobat, datuen alderaketa errazteko, txosten honetan inkesta soziolinguistikoetan erabiltzen diren kategoria nagusiak erabili dira:

- **Hiztun motak.** Hiru hiztun mota bereizi dira euskaraz mintzatzeko eta ulertzeko gaitasunaren arabera:
  - **Euskalduna**, euskaraz ongi edo nahiko ongi ulertzeko eta mintzatzeko gai dena.
  - **Euskaldun hartzalea**, euskaraz zerbait badaki ere, ongi edo nahiko ongi mintzatzeko gai ez dena.
  - **Erdalduna**, euskaraz ulertzeko eta mintzatzeko gai ez dena.
- **Elebidun tipologiak.** Hiru elebidun tipologia bereizi dira euskaraz eta erdaraz (oro har, gaztelaniaz) duten hizkuntza gaitasun erlatiboaren arabera:
  - **Euskal elebiduna**, euskaraz mintzatzeko erraztasun handiagoa duena erdaraz mintzatzeko baino.
  - **Elebidun orekatua**, euskaraz eta erdaraz mintzatzeko erraztasun bera duena.
  - **Erdal elebiduna**, erdaraz mintzatzeko erraztasun handiagoa duena euskaraz mintzatzeko baino.

2018ko GBBik Nafarroako datu soziolinguistikoak udalerrira emateko aski lagin handirik ez du. Datuak geografikoki azaltzeko, aukera izan den guztietan, hiru irizpide erabili dira:

- **Hizkuntza eremuak**, 18/1986 Foru Legeak, Euskarari buruzkoak, 5. artikuluan zedarrizten dituenak: **euskalduna**, **mistoa** eta **ez euskalduna**. 2017an eremuen osaera nabarmen aldatu da. 9/2017 Foru Legeak, ekainaren 27koak, hizkuntza eremuak aldatu zituen: udalerr

bat (Atetz) eremu mistotik eremu euskaldunera pasatu zen eta ordura arte eremu ez euskaldunekoak ziren 44 udalerrri eremu mistoan sartu ziren. Beraz, 2017 urtetik aitzina hizkuntza eremuetako datuak ezin dira aurreko urteetakoekin alderatu eta, horregatik, dokumentu honetan beste irizpide geografiko batzuk ere erabili dira.



- **Eskualdeak**, 4/2019 Foru Legeak, otsailaren 4koak, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarakoak zedarrizten dituenak: Baztan-Bidasoa, Erdialdea, Erribera, Erriberagoiena, Estellerra, Iruñerria, Izarbeibar-Novenera, Larraun-Leitzaldea, Pirinioak, Pirinioaurrea, Sakana eta Zangozerria.

Eskualde batzuetako lagin txikia dela-eta, NASTATEk eskualde multzo hauek egin ditu:

- Baztan-Bidasoa eta Larraun-Leitzaldea
- Zangozerria eta Erdialdea
- Erribera eta Erriberagoiena

7.1 eranskinean eskualde bakoitza zein udalerririk osaturik dagoen azaltzen da.

- **Gune soziolinguistikoak**, biztanleria euskaldunaren ehunekoaren arabera:
  - 1. gune soziolinguistikoa, euskaldunen ehunekoa % 20 baino gutxiago duten udalerririk osatua.
  - 2. gune soziolinguistikoa, euskaldunen ehunekoa % 20 eta % 49 bitartean duten udalerririk osatua.
  - 3. gune soziolinguistikoa, euskaldunen ehunekoa % 50 eta % 79 bitartean duten udalerririk osatua.
  - 4. gune soziolinguistikoa, euskaldunen ehunekoa % 80 eta hortik goiti duten udalerririk osatua.


7.2 eranskinean gune soziolinguistikoen osaera azaltzen da.

# 1 Euskara gaitasuna

Ikerketa honen unibertsoa 2018ko Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria da: 537.229 lagun.

Horietatik euskaldunak, euskaraz ongi edo nahiko ongi egiten dutenak, 75.810 dira (% 14,1); euskaldun hartzaileak, euskaraz zerbait jakin bai baina ongi mintzatzen ez direnak, 42.994 (% 8); eta erdaldunak, euskaraz ez dakitenak, 418.425 (% 77,9).

## 1. irudia. Euskara gaitasuna. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

Datu demolinguistikoak aztertzean Nafarroako gizartearen ezaugarri demografiko nagusiak aintzat hartu behar dira. 1991tik Nafarroako gizartea nabarmen aldatu da. Alde batetik, biztanleria handitu da (519.277 biztanle ziren 1991n eta 647.554 2018an) saldo begetatiboagatik, hau da, jaiotza eta heriotza kopuruen arteko alde positiboagatik baino gehiago migrazio saldoagatik, hots, immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldeagatik. Izan ere, XXI. mende hasieratik hona atzerrian sortutako biztanleak nabarmen berretu dira (% 2,7 ziren 2000. urtean eta % 15,1 2019ko hasieran). Bestetik, Nafarroako gizartea zahartu da, bizi itxaropena gero eta handiagoa baita eta jaiotze tasa Europakoa baino txikiagoa (9,2 jaiotza 1.000 biztanleko, Europakoa [EB-27] 10,1 izanda). Hori horrela, adinekoek Nafarroako gizartean duten pisu erlatiboa handitzearekin batera, gazteena txikitu da (65 urtetik goitikoak % 19,6 dira eta 15 urte beheetikoak % 15,5)<sup>1</sup>.

Biztanleria euskaldunaren bilakaerari dagokionez, 1991tik 2018 bitarte, euskaldunek Nafarroako gizartean duten pisu erlatiboa etengabeki handitu da, 16 urteko eta urte gehiagoko nafarren % 9,5 ziren euskaldun 1991n eta % 14,1 dira 2018an.

Euskaldun hartzaileen ehunekoa ere, nahiz gorabeheratsuki, urte tarte horretan handitu da.


<sup>1</sup> Nastat - Nafarroako Estatistika Erakundea

**1. taula. Euskara gaitasunaren bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018**

	EUSKALDUNAK (%)	EUSKALDUN HARTZAILEAK (%)	ERDALDUNAK (%)	GUZTIRA (ABSOLUTUAK)
1991	9,5	4,6	85,9	519.277
2016	12,9	10,3	76,8	640.647
2018	14,1	8,0	77,9	647.554

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016, NASTAT eta GBBI / ESyCV, 2018.

**2. irudia. Euskaldunen bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018**




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 eta GBBI-ESyCV, 2018.

**1.1 Euskara gaitasuna hizkuntza eremuetan, eskualdeetan eta hiriburuan**

**Euskara gaitasuna hizkuntza eremuetan**

2018ko datuen arabera, Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren % 60,8 da euskalduna eremu euskaldunean, % 12,4 eremu mistoan eta % 2,6 eremu ez euskaldunean.

**3. irudia. Euskara gaitasuna hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)**




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

Ehuneko horiek ordezkatzeko dituzten kopuru absolutuei so eginez gero, 16 urteko eta urte gehiagoko 75.810 nafar euskaldun gehienak eremu euskaldunetik kanpo bizi direla ikusten da: 29.459 eremu euskaldunean (nafar euskaldunen % 38,9), 42.551 eremu mistoan (% 56,1) eta 3.800 eremu ez euskaldunean (% 5).

Euskaldun hartzaileen kopuruei dagokienez, 16 urteko eta urte gehiagoko 42.994 nafar euskaldun hartzaileetatik gehien-gehienak eremu mistoan bizi dira: eremu euskaldunean 5.187 (nafar euskaldun hartzaileen % 12), eremu mistoan 32.217 (% 75) eta eremu ez euskaldunean 5.590 (% 13).

Hizkuntza gaitasunaren bilakaerari dagokionez, 1991tik 2018 bitartean, hiru eremuetako hizkuntza gaitasuna ez da modu berean bilakatu. Eremu euskaldunean euskaldunen ehunekoak bere horretan dago (1991n % 60,3 eta 2018an % 60,8) eta beste bi eremuetan hazi da: eremu mistoan etengabeki, % 5,2 izatetik % 12,4 izatera pasatuz; eta eremu ez euskaldunean % 0,6 izatetik % 2,6 izatera igota.

#### 4. irudia. Euskaldunen bilakaera hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 eta GBBI / ESyCV, 2018.

2017an hizkuntza eremuen osieran gertatu zen aldaketak eremuen egoera demolinguistikoki nola eragin dion ikusteko<sup>2</sup>, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko datuak eta 2018ko GBBIkoak alderatu dira: eremu mistoan euskaldunen ehunekoak 1,1 puntu egin du gora (% 11,3 izatetik % 12,4 izatera) eta euskaldun hartzaileen portzentajeak 2,6 behera (% 12 izatetik % 9,4 izatera). Eremu ez euskaldunean euskaldunen ehunekoak bere horretan gelditu da (% 2,7 eta % 2,6) baina euskaldun hartzaileena ia erdira murriztu da (% 6,8 izatetik % 3,8 izatera). Beherakada hori azaltzean, 2017an eremu ez euskalduneko euskararen egoera soziolinguistikorik onena zuten 44 udalerrri eremu mistora pasatu izana aintzat hartu behar da.

<sup>2</sup> 9/2017 Foru Legeak, ekainaren 27koak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen hizkuntza eremuen osiera aldatu zuen: udalerrri bat (Atetz) eremu mistotik eremu euskaldunera pasatu zen eta ordura arte eremu ez euskaldunekoak ziren 44 udalerrri eremu mistoan sartu ziren.

**2. taula. Hizkuntza gaitasunaren bilakaera hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 - 2018 (%)**

	EREMU EUSKALDUNA			EREMU MISTOA			EREMU EZ EUSKALDUNA		
	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak
2016	61,1	13,4	25,5	11,3	12,0	76,8	2,7	6,8	90,5
2018	60,8	10,7	28,6	12,4	9,4	78,2	2,6	3,8	93,6

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 eta GBBI / ESyCV, 2018.

**Euskara gaitasuna eskualdeetan**

Aldagai geografikoa esanguratsua da Nafarroako biztanleen hizkuntza gaitasuna azaltzeko. Honako hau da Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren hizkuntza gaitasuna 4/2019 Foru Legeak, otsailaren 4koak, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarakoak zedarritzen dituen eskualdeen (eta NASTATEk egindako eskualde multzoen) arabera:

**3. taula. Euskara gaitasuna eskualdearen arabera. Nafarroa, 2018 (%)**

	EUSKALDUNAK	EUSKALDUN HARTZAILEAK	ERDILDUNAK
Baztan-Bidasoa eta Larraun-Leitzaldea	80,0	6,8	13,2
Sakana	42,0	14,2	43,8
Pirinioak	27,3	16,1	56,6
Pirinioaurrea	20,8	14,2	65,0
Iruñerria	12,6	9,4	78,0
Estellerria	8,1	6,7	85,1
Izarbeibar-Novenera	7,4	6,3	86,4
Zangozerria eta Erdialdea	4,6	7,0	88,4
Erribera eta Erriberagoiena	1,6	2,8	95,6

Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

Taulak darakutsanez, Baztan-Bidasoa eta Larraun-Leitzaldea dira euskaldun ehunekorik altuena (% 80) duen eskualde multzoa. Horien atzetik, Sakana, Pirinioak eta Pirinioaurrea eskualdeak daude euskaldunen ehuneko esanguratsua dutenak (% 42, % 27,3 eta % 20,8, hurrenez hurren). Iruñerrian, Nafarroako biztanleriaren erdia baino gehiago biltzen den eskualdean, euskaldunen portzentajea ehuneko hamarretik goiti dago (% 12,6). Horren ondotik Estellerria (% 8,1), Izarberibar-Novenera (% 7,4) eta Zangozerriko eta Erdialdeko eskualde multzoa (% 4,6) daude. Ehunekorik apalena Erribera eta Erriberagoiena eskualdeei dagokie (% 1,6).




Ehuneko horien atzean dauden balio absolutuak xehakaturik, Nafarroan dauden 16 urteko eta urte gehiagoko 75.810 euskaldunen erdia Iruñerrian bizi da (38.259). 42.994 euskaldun hartzaileetatik gehienak ere eskualde horretan bizi dira (28.701).

Hiriburua biltzen duen eskualdearen ondotik, euskaldun eta euskaldun hartzaile kopuruetan Baztan-Bidasoa eta Larraun-Leitzaldea eskualde multzoa dago (20.623 euskaldun eta 1.765 euskaldun hartzaile dituen), Sakana (6.880 eta 2.328, hurrenez hurren) eta Estellerria (4.179 eta 3.459). Gainerako eskualdeetan euskaldun eta euskaldun hartzaile kopuru apalagoak bizi dira. Kopuru handiagotik txikiagorako hurrenkeran: Zangozeria eta Erdialdea eskualde multzoa (1.412 eta 2.168), Erribera eta Erriberagoiena eskualde multzoa (1.406 eta 2.487), Pirinioak (1.373 eta 810), Pirinioaurrea (911 eta 623), eta azkenik, Izarbeibar-Novenera eskualdea (767 eta 653).

### Euskara gaitasuna hiriburuan

2018an, 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria hartuta, Iruñean % 12,4 dira euskaldunak, % 8,9 euskaldun hartzaileak eta euskaraz ez dakitenak % 78,7.


### 5. irudia. Euskara gaitasuna. Iruña, 2018 (%)



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

Euskaldunen bilakaerari dagokionez, 2011tik 2018 bitartean Iruñeko euskaldunak % 9,1 izatetik % 12,4 izatera pasatu dira. Euskaldun hartzaileen bilakaera aldiz, ez da positiboa izan.

### 6. irudia. Euskara gaitasunaren bilakaera. Iruña, 2011 - 2018 (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak, 2011, 2016 eta GBBI / ESyCV, 2018.




## 1.2 Euskara gaitasuna sexuaren eta adinaren arabera

### Euskara gaitasuna sexuaren arabera

Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko emakumezkoen % 13,5 da euskalduna eta % 8,2 euskaldun hartzailea. Gizonezkoen artean % 14,7 da euskalduna eta % 7,8 euskaldun hartzailea. Hala bada, sexua ez da euskararen ezagutzaren aldagai esanguratsua.

### 7. irudia. Euskara gaitasuna sexuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

### Euskara gaitasuna adinaren arabera

Adinaren aldagaiak aldiz, biziki eragiten dio Nafarroako biztanleriaren euskararen gaitasunari. Adin taldea zenbat eta gazteagoa izan, euskaldunen portzentajea orduan eta handiagoa da.

### 8. irudia. Euskara gaitasuna adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

Euskaldunen ehunekoaren bilakaera, adinaren arabera, 1991tik 2018 bitartean azterturik, ikusten dugu belaunaldi gazteenetan (16-24 eta 25-34 urte tarteko adin taldeetan) igo dela gehien euskaldunen portzentajea.

**4. taula. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)**

	16-24	25-34	35-49	50-64	≥65
1991	10,0	7,0	10,3	9,4	10,7
2006	19,1	12,5	9,7	9,0	9,1
2011	20,8	14,5	10,1	9,6	9,3
2016	25,8	18,8	11,7	9,5	8,3
2018	24,9	21,8	14,1	10,9	8,4

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa, 1991, 2006, 2011, 2016 eta GBBI / ESyCV, 2018.


**9. irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)**

Iturria: I. Inkesta Soziolinguistikoa, 1991 eta GBBI / ESyCV, 2018.

**1.3 Hizkuntza gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko**

Euskaldunei zein hizkuntzatan (euskaraz edo erdaraz) mintzaten diren errazen galdeginik, emandako erantzunak hiru kategoriatan antolatu dira: euskal elebidunak (erraztasun handiagoa dutenak euskaraz mintzatzeko erdaraz egiteko baino), elebidun orekatuak (bi hizkuntzetan erraztasun bera dutenak) eta erdal elebidunak (erraztasun handiagoa dutenak erdaraz [oro har gaztelaniaz, baina beste erdarak ere izan daitezke] mintzatzeko euskaraz egiteko baino).

Hala bada, honela sailkatzen dira Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko euskaldunak hizkuntza gaitasun erlatiboaren arabera: % 16,4 euskal elebidunak dira, % 33,9 elebidun orekatuak eta % 49,7 erdal elebidunak.

**10. irudia. Euskaldunen erraztasuna euskaraz eta erdaraz mintzatzeko. Nafarroa, 2018 (%)**

Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.


Bilakaera historikoari erreparaturik, 1991tik 2018 bitarte euskal elebidunen ehunekoak 24,2 puntuko jaitsiera izan du; eta elebidun orekatuen eta erdal elebidunen ehunekoek, aldiz, 7,3 eta 16,9 puntuko igoera izan dute, hurrenez hurren.

##### 5. taula. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboaren bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)

URTEAK	EUSKAL ELEBIDUNAK	ELEBIDUN OREKATUAK	ERDAL ELEBIDUNAK
1991	40,6	26,6	32,8
1996	32,7	28,9	38,4
2006	26,2	29,6	44,2
2011	25,0	27,1	47,9
2016	23,2	25,7	51,1
2018	16,4	33,9	49,7

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak, 1991, 1996, 2006, 2011, 2016 eta GBBI / ESyCV, 2018.

##### 11. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboaren bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)




Iturria: I. Inkesta Soziolinguistikoa, 1991 eta GBBI / ESyCV, 2018.

## 1.4 Hizkuntza gaitasun erlatiboa adinaren arabera

65 urteko eta urte gehiagoko euskaldunen artean dugu euskal elebidunen ehunekorik altuena (% 34,7). Gainerako adin taldeetan, 25 eta 50 urte bitartekoen artean batik bat, euskal elebidunen portzentajea franko apalagoa da. Gazteen artean euskal elebidunen eta elebidun orekatuen pisu erlatiboa nabarmen handitzen da.


##### 12. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboa adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

Adin taldeen hizkuntza gaitasun erlatiboaren bilakaera historikoak euskal elebidunen ehunekoaren txikitzea eta erdal elebidunenaren igotzea erakusten du adin talde guztietan. 1991n 35 urtetik goitiko euskaldunen artean euskal elebidunak ziren nagusi eta 2018an elebidun orekatuak eta erdal elebidunak dira gehienak.

**13. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboa adinaren arabera, bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)**




Iturria: I. Inkesta Soziolinguistikoa, 1991 eta GBBi / ESyCV, 2018.

## 1.5 Hizkuntza gaitasun erlatiboa gune soziolinguistikoaren arabera

Euskararen gaitasun erlatiboa nabarmen aldatzen da gune soziolinguistikoaren arabera. Euskaldunen portzentajea % 80 eta hortik goiti duten (4. gune soziolinguistikoko) udalerrietako euskaldunen % 48,6k errazago egiten du euskaraz gaztelaniaz baino eta % 40,9k bi hizkuntzetan berdina egiten duela dio. Aldiz, euskaldunak % 20 baino gutxiago diren (1. gune soziolinguistikoko) udalerrietan % 3,9 eta % 28,8 dira balio horiek, hurrenez hurren.

### 14. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboa gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.








## 2 Lehen hizkuntza

2018ko datuen arabera, Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria aintzat hartuta, % 9,1ek du euskara lehen hizkuntza (% 5,8k euskara hutsa eta % 3,3k gaztelaniarekin batera). Gainerako biztanleria (% 90,9) harturik, gehien-gehienek (% 84,9k) gaztelania dute lehen hizkuntza eta gainerakoek (% 6k) beste hizkuntza bat.

### 15. irudia. Biztanleriaren lehen hizkuntza. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

Bilakaera historikoari so eginez, 1991tik 2018 bitartean, euskara, soilik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza izan duen 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren ehunekoak beheitixe egin du: % 10,2 zen 1991n eta % 9,1 da 2018an.

Euskara soilik lehen hizkuntza izan dutenen ehunekoen serie historikoan 2018koa da baliorik apalena (% 5,8); aldiz, euskara eta gaztelania lehen hizkuntzak izan dituztenen serie historikoan 2018koa da altuena (% 3,3).

### 16. irudia. Biztanleriaren lehen hizkuntzaren bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak, 1991, 1996, 2006, 2011, 2016 eta GBBi / ESyCV, 2018.

## 2.1 Lehen hizkuntza sexuaren eta adinaren arabera

### Lehen hizkuntza sexuaren arabera

16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria nafarraren lehen hizkuntzan sexuaren aldagaiak ez du esanguratsuki jokatzen.

#### 17. irudia. Biztanleriaren lehen hizkuntza sexuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

### Lehen hizkuntza adinaren arabera

Adina aldiz, aldagai eraginkorra da lehen hizkuntzan. 65 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren artean dago euskara lehen hizkuntza bakarra izan duten ehunetik altuena (% 6,9).

Gazteei dagokienez, % 15,1ek euskara, hutsik edo gaztelaniarekin batera, izan du lehen hizkuntza. Nabarmentzekoa da euskara eta gaztelania, biak, lehen hizkuntza izan dutenen portzentajearen igoera gazteen artean (% 10,1).

#### 18. irudia. Biztanleriaren lehen hizkuntza adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

## 2.2 Lehen hizkuntza eremuaren arabera

Euskararen Foru Legeak ezarritako hizkuntza eremuen arabera aztertuz, eremu euskalduneko herritar gehienek euskara dute lehen hizkuntza: % 53,4k (% 42,2k euskara du lehen hizkuntza bakarra eta % 11,2k gaztelaniarekin batera).

Eremu mistoko herritarren % 6,2k du euskara lehen hizkuntza (% 2,9k euskara hutsik eta % 3,3k gaztelaniarekin batera) eta eremu ez euskaldunean, herritarren % 1,2k du euskara, soilik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza.

**19. irudia. Biztanleriaren lehen hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)**




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

**2.3 Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera**

Euskaldunen dentsitate handieneko gune soziolinguistikoetan (3.enean eta 4.enean) daude euskara, soilik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza izan duten hiztunen ehunekorik altuenak, % 67 eta % 85,3, hurrenez hurren.

**20. irudia. Biztanleriaren lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)**



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.




## 3 Hizkuntza erabilera

2018ko datuen arabera, Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria aintzat hartuta, % 11,8k erabiltzen du euskara neurri batean edo bestean:

a) % 6k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.

b) % 5,8k euskara erabiltzen ohi du, baina erdara baino gutxiago.


### 21. irudia. Hizkuntza erabilera. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

1991tik 2018 bitarteko bilakaerari so eginez, 2016an eta 2018an dugu euskaraz erdaraz beste edo gehiago erabiltzen dutenen eta euskaraz erdaraz baino gutxiago egiten dutenen ehunekorik altuenak.

### 22. irudia. Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 eta GBBI / ESyCV, 2018.

### 3.1 Hizkuntza erabilera hizkuntza eremuaren eta gune soziolinguistikoaren arabera

#### Hizkuntza erabilera hizkuntza eremuaren arabera

Euskararen erabilera nabarmen aldatzen da hizkuntza eremuaren arabera. Eremu euskaldunetan 16 urteko edo urte gehiagoko herritarren % 48,3 euskaraz erdaraz beste edo gehiago egiten du eta % 11,4 euskaraz erdaraz baino gutxiago. Eremu mistoan balio horiek % 2,4 eta % 6,9 dira hurrenez hurren. Eremu ez euskaldunetan euskararen erabilera trinkoaren ehuneko baten azpian dago eta euskararen erabilera ez trinkoa ehuneko baten goitixe, % 1,3.

#### 23. irudia. Hizkuntza erabilera hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa. 2018 (%)




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

#### Hizkuntza erabilera gune soziolinguistikoaren arabera

Euskararen erabilerean gaineko datuetan alde handiak daude euskaldunen dentsitate handiko eta txikiko guneen artean. 3. eta 4. gune soziolinguistikoetan, eguneroko jardunean euskararen erabilera trinkoa (euskaraz erdaraz beste edo gehiago) egiten dutenak % 59,7 eta % 88,9 dira, hurrenez hurren.

1. eta 2. gune soziolinguistikoetan, eguneroko jardunean euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen portzentajea apaltzen da % 1,7ra 1. gunerako eta % 10,2ra 2. gunerako.

#### 24. irudia. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

## 3.2 Hizkuntza erabilera sexuaren eta adinaren arabera

### Hizkuntza erabilera sexuaren arabera

Euskararen erabilera trinkoa handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (% 7,2 eta % 4,9). Erabilera ez trinkoa aldiz, puntu bat handiagoa da emakumezkoen artean (% 6,3).

### 25. irudia. Hizkuntza erabilera sexuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

### Hizkuntza erabilera adinaren arabera

Hizkuntza erabilera adinaren arabera azterturik, eguneroko jardunean euskararen erabilera trinkoa (hau da, euskaraz erdaraz beste edo gehiago egitea) gazteen (16 - 24 urtekoen) % 5,7k egiten du; heldu gazteen (25 - 34 urtekoen) % 5,1ek; helduen (35 - 49 urtekoen) % 6,1ek; heldu adinekoen (50 - 64 urtekoen) % 6,5ek eta adinekoen (65 urtekoen eta urte gehiagokoak) % 5,9k.

Euskararen erabilera ez trinkoari (euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago egiteari) erreparaturik: gazteen artean dugu erabilera ehunekorik altuena, % 8,2; eta adinekoen artean apalena, % 2,1.

### 26. irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.



Adin taldeen euskararen erabilera trinkoaren (euskaraz erdaraz beste edo gehiago egiten dutenen) bilakaerak 2016ko datuen aldean, jaitsiera adin talderik gazteenetan gertatu dela agertzen du.

**27. irudia. Euskararen erabilera trinkoa adinaren arabera, bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)**




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 eta GBBI / ESyCV, 2018.

**3.3 Etxeko hizkuntza erabilera**

**Etxean gehien mintzatzen d(ir)en hizkuntza(k)**

Etxean gehien mintzatzen diren hizkuntzaz galdeginik, Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren % 4,2k euskaraz aritzen dela dio eta % 3,8k euskaraz eta gaztelaniaz.

**28. irudia. Etxean gehien mintzatzen d(ir)en hizkuntza(k). Nafarroa, 2018 (%)**




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

**Hizkuntza erabilera etxean etxeko guztiak daudelarik**

2018ko datuen arabera, Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria aintzat hartuta, kide guztiak etxean daudelarik, beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago herritarren % 7k egiten du eta euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago % 5,2k.

**29. irudia. Etxeko erabilera etxeko guztiak daudelarik. Nafarroa, 2018 (%)**



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.


**3.4 Etxeko hizkuntza erabilera gune soziolinguistikoaren arabera**

**Etxean gehien mintzatzen d(ir)en hizkuntza(k) gune soziolinguistikoaren arabera**

Euskaldunen dentsitate handieneko gune soziolinguistikoetan (3.enean eta 4.enean) daude euskara etxeko hizkuntzarako duten herritarren ehunekorik altuenak: % 42,9 eta % 71,9, hurrenez hurren. Euskara eta gaztelania, biak, etxeko hizkuntzarako dituztenen portzentaje esanguratsuenak ere 3. eta 4. gune soziolinguistikoetan ditugu: % 18,2 eta % 17,7, hurrenez hurren.

Euskaldunen dentsitatea % 50etik beheiti duten 1. eta 2. gune soziolinguistikoetan, euskara etxeko hizkuntza nagusitako jotzen dutenen ehunekoa txikiagoa da: % 1,1ek eta % 5,8k, hurrenez hurren. Etxean euskaraz eta gaztelaniaz egiten dutenak, % 2,7 eta % 8,7 dira, hurrenkera horretan.

**30. irudia. Etxean gehien mintzatzen d(ir)en hizkuntza(k) gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018**




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

**Hizkuntza erabilera etxean etxeko guztiak daudelarik, gune soziolinguistikoaren arabera**

Gune soziolinguistikoaren aldagaia biziki esanguratsua da etxeko erabileran kide guztiak elkarrekin daudelarik. Beti euskaraz eta euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago egiten dutenak 1. gune soziolinguistikoan % 3,1 dira eta 4. gune soziolinguistikoan % 82,7.

**31. irudia. Hizkuntza erabilera etxean, etxeko guztiak daudelarik, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)**




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

**3.5 Euskaldunen hizkuntza erabilera ahaideekin**

Ahaideekin egiten ohi duten hizkuntzaz galdeginik, 16 urteko eta urte gehiagoko nafar euskaldunek diotenez, anai-arrebekin eta seme-alabekin egiten ohi dute maizen euskaraz. Anai-arrebekin beti euskaraz nahiz euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago egiten dutela diote % 44,8k; eta seme-alabekin % 38,6k.

**32. irudia. Euskaldunen hizkuntza erabilera ahaideekin. Nafarroa, 2018 (%).**




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

### 3.6 Euskaldunen hizkuntza erabilera familiaratik kanpo

Familiaratik kanpo egiten ohi duten hizkuntzaz galdeginik, 16 urteko eta urte gehiagoko nafar euskaldunen artean % 55,2k egiten du adiskideekin euskararen erabilera trinkoa (beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago), % 45,7k udaleko zerbitzuetan, % 40,4k dendetan, % 33,9k banketxeetan eta % 32,8k osasun etxean.

#### 33. irudia. Euskaldunen hizkuntza erabilera familiaratik kanpo. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

#### Euskaldunen hizkuntza erabilera familiaratik kanpo, gune soziolinguistikoaren arabera

##### Adiskideekin

Adiskideekin euskaraz beti edo gaztelaniaz beste edo gehiago, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 94,8k egiten du, 3. gune soziolinguistikoan % 83,5ek, 2. gune soziolinguistikoan % 50ek eta 1. gune soziolinguistikoan % 38,3k.

#### 34. irudia. Euskaldunen hizkuntza erabilera adiskideekin, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

*Dendetan*

Dendetan euskaraz beti edo gaztelaniaz beste edo gehiago, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 90,5ek egiten du, 3. gune soziolinguistikoan % 76k, 2. gune soziolinguistikoan % 47,2k eta 1. gune soziolinguistikoan % 17,5ek.

**35. irudia. Euskaldunen hizkuntza erabilera dendetan, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).**




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

*Banketxeetan*

Banketxeetan euskaraz beti edo gaztelaniaz beste edo gehiago, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 78,8k egiten du, 3. gune soziolinguistikoan % 65ek, 2. gune soziolinguistikoan % 39,8k eta 1. gune soziolinguistikoan % 13,7k.

**36. irudia. Euskaldunen hizkuntza erabilera banketxeetan, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).**




Iturria: GBBi / ESyCV, 2018.

*Osasun etxean*

Osasun etxean euskaraz beti edo gaztelaniaz beste edo gehiago, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 85,1ek egiten du, 3. gune soziolinguistikoan % 68,1ek, 2. gune soziolinguistikoan % 36,3k eta 1. gune soziolinguistikoan % 10,2k.

**37. irudia. Euskaldunen hizkuntza erabilera osasun etxean, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).**




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

*Udaleko zerbitzuetan*

Udaleko zerbitzuetan euskaraz beti edo gaztelaniaz beste edo gehiago, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 92,3k egiten du, 3. gune soziolinguistikoan % 82,7k, 2. gune soziolinguistikoan % 62,8k eta 1. gune soziolinguistikoan % 21,9k.

**38. irudia. Euskaldunen hizkuntza erabilera udaleko zerbitzuetan, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).**



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.






## 4 Euskara jakitearen egiaztatzea

2018ko datuen arabera, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen artean, hau da, euskara ongi edo zerbait dakiten 16 urteko eta urte gehiagoko nafarren artean % 35,3k du egiaztapenen bat.

### 39. irudia. Euskaldunen eta euskaldun hartzaileen euskara jakitearen egiaztapenak. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

### 4.1 Euskara jakitearen egiaztatzea sexuaren arabera

Emakumezkoek beren euskararen ezagutza egiaztatzen dute gizonezkoek baino portzentaje handiagoan.

### 40. irudia. Euskaldunen eta euskaldun hartzaileen euskara jakitearen egiaztapenak sexuaren arabera. Nafarroa. 2018 (%)




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

## 4.2 Euskara jakitearen egiaztatzea adinaren arabera

Biztanleria gazteagoak bere euskararen ezagutza egiaztatzen du neurri nabarmen handiagoan.

### 41. irudia. Euskaldunen eta euskaldun hartzaileen euskara jakitearen egiaztapenak adinaren arabera. Nafarroa. 2018 (%)



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

## 4.3 Euskara eta atzerriko hizkuntzak jakitearen egiaztatzea

16 urteko eta gehiagoko nafarren artean % 20,6k daki ongi edo zertxobait ingelesez eta % 9k frantsesez. Atzerriko hizkuntza horiek jakitearen egiaztapen ehunekoak euskaraz jakitearen egiaztatze ehunekoarekin alderaturik, euskaraz jakitearen egiaztatze portzentajea altuagoa dela ikusten da.


Euskaraz zerbait bederen dakiten nafarren % 35,3k du egiaztapenen bat, aldiz, ingelesez ongi edo zerbait dakitenen % 29,4k eta frantsesez dakitenen % 16,2k.

Euskaraz jakitearen egiaztatzea mailaren arabera aztertutik, euskaraz ongi edo zerbait dakitenen % 4k du A1 edo A2 mailako egiaztapena, % 15ek B1 edo B2 mailako egiaztapena eta % 16,3k C1eko edo hortik goitiko.

Ingelesari dagokionez, mailaren araberako egiaztatzea honelakoa da: ingelesez ongi edo zerbait dakitenen % 3,7k du A1 edo A2 mailako egiaztapena, % 19,5ek B1 edo B2 mailako egiaztapena eta % 6,2k C1eko edo hortik goitiko.

Frantsesaren kasuan, % 5,4k du A1 edo A2 mailako egiaztapena, % 6,8k B1 edo B2 mailako egiaztapena eta % 4k C1eko edo hortik goitiko.

#### 42. irudia. Euskara eta atzerriko hizkuntzak jakitearen egiaztapenak. Nafarroa. 2018 (%)




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.



## 5 Ingeleseztan frantseseztan jakitea

Nafarroako euskaldunek gaztelaniaztan ez ezik, atzerriko hizkuntzetan (ingeleseztan edo frantseseztan) ere badakite Nafarroako biztanleriaren batez bestetik goiti. Izan ere, atzerriko hizkuntzen ezagutza handiagoa da nafar euskaldunen artean, euskaraz ez dakiten nafarren artean baino. Euskaraz ez dakiten 16 urteko eta gehiagoko nafarren % 22,8k daki ingelesez, frantseseztan edo bietan. Aldiz, gaztelaniaztan eta euskaraz dakitenen % 35,9k daki gainera ingelesez, frantseseztan edo bietan.

### 43. irudia. Euskaldunen eta erdaldunen ingelesa edota frantsesa jakitea. Nafarroa. 2018 (%).




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

### 5.1 Ingeleseztan frantseseztan jakitea euskaldunen artean eta erdaldunen artean, adinaren arabera

Nafarroan gazteak, eta batik bat euskaldunak, dira talderik eleaniztunena. Euskaraz ez dakiten 16 eta 24 urte bitarteko gazte nafarren artean, % 57,8k daki ingelesez, frantseseztan edo bietan. Aldiz, gaztelaniaztan eta euskaraz dakiten gazteen artean % 64,4 da horietaz gain ingelesez, frantseseztan edo bietan ere dakitenak.

### 44. irudia. Ingeleseztan edota frantseseztan jakitea euskaldunen eta erdaldunen artean, adinaren arabera. Nafarroa. 2018 (%).




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.



## 6 Euskarazko hedabideen kontsumoa

Inkestaren aurreko astean entzundako, ikusitako edo irakurritako euskarazko hedabideen gainean galdeginik, erantzuna honakoa da: 16 urteko eta urte gehiagoko nafar euskaldunen artean % 43,1ek paperezko prentsa idatzia irakurri du eta % 39,3k prentsa euskarri digitalean irakurri du; % 74,3k irratia, podcast edo telebista euskaraz entzun/ikusitako du.

### 45. irudia. Euskaldunen euskarazko hedabideen kontsumoa. Nafarroa. 2018 (%).




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

### 6.1 Euskarazko hedabideen kontsumoa sexuaren arabera

Nafarroako biztanleria euskaldunaren artean, gizonetako euskarazko hedabideen kontsumo handiagoa egiten dute emakumeetako baino.

### 46. irudia. Euskaldunen euskarazko hedabideen kontsumoa sexuaren arabera. Nafarroa. 2018 (%).




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.

## 6.2 Euskarazko hedabideen kontsumoa adinaren arabera

Adinak ez dio euskarazko hedabide mota guztien kontsumoari berdin eragiten. Paperezko egunkari-aldizkarien kontsumoa handiagoa da 35 urtetik goitiko adin taldeetan; aldiz, idatzizko prentsa digitalaren kontsumoa nabarmen txikiagoa da adinekoen taldeetan. Irrati, podcast eta telebista hedabideen kontsumoa ez da adinaren arabera modu esanguratsuan aldatzen.

### 47. irudia. Euskaldunen euskarazko hedabideen kontsumoa adinaren arabera. Nafarroa. 2018 (%).




Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.



### 6.3 Euskarazko hedabideen kontsumoa gune soziolinguistikoaren arabera

Udalerrietako euskaldunen dentsitateak, oro har, ez dio modu esanguratsuan eragiten euskarazko hedabideen kontsumoari. 1. gune soziolinguistikoko euskaldunen artean dago idatzizko prentsa digitalaren kontsumorik altuena (% 43,2), baina paperezko apalena (% 36,4). Berebat, 4. gune soziolinguistikoan dauden herri euskaldunetako euskaldunen artean idatzizko prentsa digitalaren kontsumoa txikiena da (% 31,8) baina, ordea, irrati, podcast eta telebista hedabideen kontsumorik altuena dago (% 86,6).

#### 48. irudia. Euskaldunen euskarazko hedabideen kontsumoa gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa. 2018 (%).



Iturria: GBBI / ESyCV, 2018.



# 7 Eranskinak

## 7.1 Eskualdeen osaera

4/2019 Foru Legeak, otsailaren 4koak, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarakoak (6. NAO, 2019ko otsailaren 6koa. Akatsen zuzenketa: 2019ko otsailaren 8ko NAO) eskualde hauek aipatu zituen:

- Baztan-Bidasoa
- Comarca de Pamplona / Iruñerria
- Comarca de Sangüesa / Zangozerria
- Larraun-Leitzaldea
- Pirineo / Pirinioak
- Prepirineo / Pirinioaurrea
- Ribera / Erribera
- Ribera Alta / Erriberagoiena
- Sakana
- Tierra Estella / Estellerría
- Valdizarbe-Novenera / Izarbeibar-Novenera
- Zona Media / Erdialdea

Eskualde batzuen lagin txikia dela-eta, NASTATEk eskualde multzo hauek egin ditu:

- Baztan-Bidasoa eta Larraun-Leitzaldea
- Ribera / Erribera eta Ribera Alta / Erriberagoiena
- Comarca de Sangüesa / Zangozerria eta Zona Media / Erdialdea


Hurrengo tauletan eskualdeak osatzen dituzten udalerrriak zerrendatzen dira:

**COMARCA DE PAMPLONA / IRUÑERRIA**

Ansoáin / Antsoain	Ciriza / Ziritza	Noáin (Valle de Elorz) / Noain (Elortzibar)
Anue	Cizur	Odieta
Aranguren	Echarri / Etxarri	Oláibar
Atetz / Atez	Esteribar	Valle de Olo / Ollaran
Barañáin / Barañain	Etxauri	Orkoien
Belascoáin	Ezcabarte	Pamplona / Iruña
Beriáin	Galar	Tiebas-Muruarte de Reta
Berrioplano / Berriobeiti	Goñi	Ultzama
Berriozar	Huarte / Uharte	Valle de Egüés / Eguesibar
Bidaurreta	Iza / Itza	Villava / Atarrabia
Burlada / Burlata	Juslapeña	Zabalza / Zabaltza
Cendea de Olza / Oltza Zendea	Lantz	Zizur Mayor / Zizur Nagusia

**BAZTAN-BIDASOA**

Arantza	Elgorriaga	Oiz
Baztan	Eratsun	Saldias
Beintza-Labaien	Etxalar	Sunbilla
Bera	Ezkurra	Urdazubi / Urdax
Bertizarana	Igantzi	Urroz
Donamaria	Ituren	Zubieta
Doneztebe / Santesteban	Lesaka	Zugarramurdi

**COMARCA DE SANGÜESA / ZANGOZERRIA**

Aibar / Oibar	Javier	Petilla de Aragón
Cáseda	Leache / Leatxe	Romanzado
Castillonuevo	Lerga	Sada
Eslava	Liédena	Sangüesa / Zangoza
Ezprogui	Lumbier	Yesa
Gallipienzo / Galipentzu		




**TIERRA ESTELLA / ESTELLERRIA**

Abáigar	El Busto	Mirafuentes
Abárzuza / Abartzuza	Espronceda	Morentin
Aberin	Estella-Lizarra	Mues
Aguilar de Codés	Etayo	Murieta
Allín / Allin	Eulate	Nazar
Allo	Genevilla	Oco
Améscoa Baja	Guesálaz / Gesalatz	Olejua
Ancín / Antzin	Igúzquiza	Oteiza
Andosilla	Lana	Piedramillera
Aranarache / Aranaratxe	Lapoblación	Salinas de Oro / Jaitz
Aras	Larraona	San Adrián
Arellano	Lazagurría	Sansol
Armañanzas	Legaria	Sartaguda
Arróniz	Lerín	Sesma
Ayegui / Aiegi	Lezaun	Sorlada
Azuelo	Lodosa	Torralba del Río
Barbarin	Los Arcos	Torres del Río
Bargota	Luquin	Valle de Yerri / Deierrri
Cabredo	Marañón	Viana
Cárcar	Mendavia	Villamayor de Monjardín
Desojo	Mendoza	Villatuerta
Dicastillo	Metauten	Zúñiga

**LARRAUN-LEITZALDEA**

Araitz	Betelu	Larraun
Arano	Goizueta	Leitza
Areso	Imotz	Lekunberri
Basaburua		



**PIRINEO / PIRINIOAK**


Abaurregaina / Abaurrea Alta	Garaioa	Ochagavía / Otsagabia
Abaurrepea / Abaurrea Baja	Garde	Orbaizeta
Aria	Garralda	Orbara
Aribe	Güesa / Gorza	Oronz / Orontze
Auritz / Burguete	Hiriberri / Villanueva de Aezkoa	Orreaga / Roncesvalles
Burgui / Burgi	Isaba / Izaba	Roncal / Erronkari
Erro	Izalzu / Itzaltzu	Sarriés / Sartze
Esparza de Salazar / Espartza Zaraitzu	Jaurrieta	Urzainqui / Urzainki
Ezcároz / Ezkaroze	Luzaide/Valcarlos	Uztároz / Uztarroze
Gallués / Galoze	Navascués / Nabaskoze	Vidángoz / Bidankoze

**PREPIRINEO / PIRINIOAUREA**

Aoiz / Agoitz	Lizoáin-Arriasgoiti / Lizoain-Arriasgoiti	Unciti
Arce / Artzi	Lónguida / Longida	Urraúl Alto
Ibargoiti	Monreal / Elo	Urraúl Bajo
Izagaondoa	Oroz-Betelu / Orotz-Betelu	Urroz-Villa

**RIBERA/ ERRIBERA**

Ablitas	Cintruénigo	Monteagudo
Arguedas	Corella	Murchante
Barillas	Cortes	Ribaforada
Buñuel	Fitero	Tudela
Cabanillas	Fontellas	Tulebras
Cascante	Fustiñana	Valtierra
Castejón		



**RIBERA ALTA / ERRIBERAGOIENA**

Azagra	Funes	Peralta / Azkoién
Cadreita	Marcilla	Villafranca
Falces	Milagro	

**SAKANA**

Altsasu / Alsasua	Ergoiena	Lakuntza
Arakil	Etxarri Aranatz	Olazti / Olazagutía
Arbizu	Irañeta	Uharte Arakil
Arruazu	Irurtzun	Urdiain
Bakaiku	Iturmendi	Ziordia

**VALDIZARBE-NOVENERA / IZARBEIBAR-NOVENERA**

Adiós	Enériz / Eneritz	Muruzábal
Añorbe	Guirguillano	Obanos
Artajona	Larraga	Puente la Reina / Gares
Artazu	Legarda	Tirapu
Berbinzana	Mañeru	Úcar
Biurrun-Olcoz	Mendigorría	Uterga
Cirauqui / Zirauki	Miranda de Arga	

**ZONA MEDIA / ERDIALDEA**

Barásóain	Murillo el Cuende	Pueyo
Beire	Murillo el Fruto	San Martín de Unx
Caparroso	Olite / Erriberri	Santacara
Carcastillo	Olóriz / Oloritz	Tafalla
Garínóain	Orísoain	Ujué / Uxue
Leoz / Leotz	Pitillas	Unzué / Untzue
Mélida		

## 7.2 Gune soziolinguistikoaren osaera

Gune soziolinguistikoak, biztanleria euskaldunaren ehunekoaren arabera:

- 1.a, euskaldunen ehunekoa % 20 baino gutxiago duten udalerriek osatua.
- 2.a, euskaldunen ehunekoa % 20 eta % 49 bitartean duten udalerriek osatua.
- 3.a, euskaldunen ehunekoa % 50 eta % 79 bitartean duten udalerriek osatua.
- 4.a, euskaldunen ehunekoa % 80 eta hortik goiti duten udalerriek osatua.

*Guneak sortzeko erreferentzia balioa (%)* eremuan dauden datuak 2011 urteko Zentsutik hartu dira.

Kodea	Udalerría	Guneak sortzeko erreferentzia balioa (%)	Gune soziolinguistikoa
001	Abáigar	6,4	1
002	Abárzuza / Abartzuza	11,5	1
003	Abaurregaina / Abaurrea Alta	50,8	3
004	Abaurrepea / Abaurrea Baja	33,5	2
005	Aberin	10,4	1
006	Ablitas	0,6	1
007	Adiós	7,1	1
008	Aguilar de Codés	6,5	1
009	Aibar / Oibar	6,4	1
010	Altsasu / Alsasua	26,9	2
011	Allín / Allin	15,4	1
012	Allo	7,7	1
013	Améscoa Baja	10,8	1
014	Ancín / Antzin	8,2	1
015	Andosilla	4,2	1
016	Ansoáin / Antsoain	15,3	1
017	Anue	32,6	2
018	Añorbe	5,7	1
019	Aoiz / Agoitz	17,4	1
020	Araitz	88,4	4
021	Aranarache / Aranaratxe	10,6	1
022	Arantza	96,2	4
023	Aranguren	9,7	1
024	Arano	81,5	4
025	Arakil	23,3	2
026	Aras	4,1	1
027	Arbizu	78,4	3
028	Arce / Artzi	18,0	1
029	Los Arcos	2,8	1
030	Arellano	13,9	1
031	Areso	91,9	4
032	Arguedas	0,3	1
033	Aria	40,3	2
034	Aribe	24,3	2
035	Armañanzas	0,0	1
036	Arróniz	7,9	1



037	Arruazu	62,3	3
038	Artajona	5,1	1
039	Artazu	12,1	1
040	Atetz / Atez	29,7	2
041	Ayegui / Aiegi	15,4	1
042	Azagra	0,0	1
043	Azuelo	0,0	1
044	Bakaiku	49,5	2
045	Barásoain	6,4	1
046	Barbarin	4,1	1
047	Bargota	4,4	1
048	Barillas	0,0	1
049	Basaburua	67,2	3
050	Baztan	74,9	3
051	Beire	3,4	1
052	Belascoáin	3,6	1
053	Berbinzana	3,6	1
054	Bertizarana	72,6	3
055	Betelu	81,1	4
056	Biurrun-Olcoz	5,6	1
057	Buñuel	0,0	1
058	Auritz / Burguete	30,4	2
059	Burgui / Burgi	13,0	1
060	Burlada / Burlata	13,2	1
061	El Busto	0,0	1
062	Cabanillas	0,0	1
063	Cabredo	20,3	2
064	Cadreita	1,0	1
065	Caparroso	1,2	1
066	Cárcar	1,8	1
067	Carcastillo	2,3	1
068	Cascante	0,4	1
069	Cáseda	7,4	1
070	Castejón	1,7	1
071	Castillonuevo	0,0	1
072	Cintruénigo	1,2	1
073	Ziordia	20,4	2
074	Cirauqui / Zirauki	11,9	1
075	Ciriza / Ziritza	18,3	1
076	Cizur	9,2	1
077	Corella	1,1	1
078	Cortes	1,9	1
079	Desojo	6,4	1
080	Dicastillo	6,7	1
081	Donamaria	90,0	4
082	Etxalar	75,2	3
083	Echarri / Etxarri	26,6	2
084	Etxarri Aranatz	72,4	3

085	Etxauri	25,7	2
086	Valle de Egüés / Eguesibar	10,6	1
087	Elgorriaga	81,9	4
088	Noáin (Valle de Elorz) / Noain (Elortzibar)	7,5	1
089	Enériz / Eneritz	11,0	1
090	Eratsun	92,8	4
091	Ergoiena	87,9	4
092	Erro	21,3	2
093	Ezcároz / Ezkaroze	13,3	1
094	Eslava	3,0	1
095	Esparza de Salazar / Espartza Zaraitzu	34,0	2
096	Espronceda	4,7	1
097	Estella-Lizarra	14,1	1
098	Esteribar	14,6	1
099	Etayo	6,5	1
100	Eulate	5,4	1
101	Ezcabarte	16,7	1
102	Ezkurra	87,6	4
103	Ezprogui	6,7	1
104	Falces	2,7	1
105	Fitero	0,3	1
106	Fontellas	2,4	1
107	Funes	0,0	1
108	Fustiñana	0,2	1
109	Galar	13,2	1
110	Gallipienzo / Galipentzu	6,0	1
111	Gallués / Galoze	27,7	2
112	Garaioa	16,6	1
113	Garde	9,4	1
114	Garínoin	5,8	1
115	Garralda	29,2	2
116	Genevilla	10,9	1
117	Goizueta	92,1	4
118	Goñi	2,8	1
119	Güesa / Gorza	0,0	1
120	Guesálaz / Gesalatz	7,8	1
121	Guirguillano	8,7	1
122	Huarte / Uharte	18,2	1
123	Uharte Arakil	26,1	2
124	Ibargoiti	5,8	1
125	Igúzquiza	12,9	1
126	Imotz	53,2	3
127	Irañeta	39,8	2
128	Isaba / Izaba	22,5	2
129	Ituren	89,5	4
130	Iturmendi	30,9	2
131	Iza / Itza	17,3	1
132	Izagaondoa	8,8	1

133	Izalzu / Itzaltzu	20,8	2
134	Jaurrieta	10,8	1
135	Javier	1,0	1
136	Juslapeña	23,1	2
137	Beintza-Labaien	90,0	4
138	Lakuntza	65,3	3
139	Lana	10,8	1
140	Lantz	18,7	1
141	Lapoblación	2,6	1
142	Larraza	2,7	1
143	Larraona	10,1	1
144	Larraun	85,4	4
145	Lazagurria	1,8	1
146	Leache / Leatxe	4,9	1
147	Legarda	7,3	1
148	Legaria	7,2	1
149	Leitza	83,2	4
150	Leoz / Leotz	28,2	2
151	Lerga	0,7	1
152	Lerín	6,7	1
153	Lesaka	78,0	3
154	Lezaun	14,0	1
155	Liédena	3,2	1
156	Lizoáin-Arriasgoiti / Lizoain-Arriasgoiti	20,6	2
157	Lodosa	2,8	1
158	Lónguida / Longida	16,6	1
159	Lumbier	16,4	1
160	Luquin	17,4	1
161	Mañeru	10,9	1
162	Marañón	15,2	1
163	Marcilla	2,4	1
164	Mélida	2,4	1
165	Mendavia	1,8	1
166	Mendaza	4,3	1
167	Mendigorria	5,2	1
168	Metauten	12,7	1
169	Milagro	1,3	1
170	Mirafuentes	14,5	1
171	Miranda de Arga	3,4	1
172	Monreal / Elo	6,3	1
173	Monteagudo	0,3	1
174	Morentin	11,3	1
175	Mues	5,5	1
176	Murchante	0,3	1
177	Murieta	6,4	1
178	Murillo el Cuende	3,3	1
179	Murillo el Fruto	1,0	1
180	Muruzábal	12,2	1

181	Navascués / Nabaskoze	15,6	1
182	Nazar	28,4	2
183	Obanos	12,1	1
184	Oco	14,9	1
185	Ochagavía / Otsagabia	22,0	2
186	Odieta	35,2	2
187	Oiz	80,5	4
188	Oláibar	19,9	1
189	Olazti / Olazagutía	23,3	2
190	Olejua	6,2	1
191	Olite / Erriberri	6,1	1
192	Olóriz / Oloritz	9,6	1
193	Cendea de Olza / Oltza Zendea	15,1	1
194	Valle de Olo / Ollaran	28,0	2
195	Orbaizeta	33,9	2
196	Orbara	14,6	1
197	Orisoain	6,7	1
198	Oronz / Orontze	30,3	2
199	Oroz-Betelu / Orotz-Betelu	5,0	1
200	Oteiza	4,3	1
201	Pamplona / Iruña	11,2	1
202	Peralta / Azkoien	1,9	1
203	Petilla de Aragón	0,0	1
204	Piedramillera	3,9	1
205	Pitillas	5,8	1
206	Puente la Reina / Gares	13,1	1
207	Pueyo	13,2	1
208	Ribaforada	0,2	1
209	Romanzado	16,6	1
210	Roncal / Erronkari	14,3	1
211	Orreaga / Roncesvalles	15,7	1
212	Sada	2,0	1
213	Saldias	88,6	4
214	Salinas de Oro / Jaitz	23,3	2
215	San Adrián	0,3	1
216	Sangüesa / Zangoza	11,7	1
217	San Martín de Unx	3,0	1
219	Sansol	6,5	1
220	Santacara	3,0	1
221	Doneztebe / Santesteban	67,5	3
222	Sarriés / Sartze	5,1	1
223	Sartaguda	4,6	1
224	Sesma	1,5	1
225	Sorlada	20,5	2
226	Sunbilla	89,0	4
227	Tafalla	8,6	1
228	Tiebas-Muruarte de Reta	7,1	1
229	Tirapu	12,0	1

230	Torralba del Río	3,1	1
231	Torres del Río	1,5	1
232	Tudela	2,6	1
233	Tulebras	1,9	1
234	Úcar	7,2	1
235	Ujué / Uxue	8,8	1
236	Ultzama	47,6	2
237	Unciti	7,2	1
238	Unzué / Untzue	6,6	1
239	Urdazubi / Urdax	80,2	4
240	Urdiain	79,9	3
241	Urraúl Alto	8,7	1
242	Urraúl Bajo	15,5	1
243	Urroz-Villa	6,7	1
244	Urroz	96,2	4
245	Urzainqui / Urzainki	14,9	1
246	Uterga	10,3	1
247	Uztárroz / Uztarroze	5,8	1
248	Luzaide / Valcarlos	67,2	3
249	Valtierra	0,3	1
250	Bera	62,6	3
251	Viana	6,8	1
252	Vidángoz / Bidankoze	24,3	2
253	Bidaurreta	14,9	1
254	Villafranca	2,2	1
255	Villamayor de Monjardín	13,3	1
256	Hiriberri / Villanueva de Aezkoa	35,7	2
257	Villatuerta	6,9	1
258	Villava / Atarrabia	18,7	1
259	Igantzi	90,9	4
260	Valle de Yerri / Deierrri	18,9	1
261	Yesa	11,7	1
262	Zabalza / Zabaltza	16,2	1
263	Zubieta	95,2	4
264	Zugarramurdi	92,1	4
265	Zúñiga	13,3	1
901	Barañáin / Barañain	11,5	1
902	Berrioplano / Berriobeiti	14,8	1
903	Berriozar	13,1	1
904	Irurtzun	27,1	2
905	Beriáin	7,7	1
906	Orkoien	14,3	1
907	Zizur Mayor / Zizur Nagusia	17,7	1
908	Lekunberri	56,5	3

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



The logo for Euskarabidea, a stylized white speech bubble or letter 'Q' shape.  
euskarabidea